




**GARAPEN
JASANGARRIRAKO
HELBURUAK**



Ikas-egoerak

Bihurtu dezagun biral bakea

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa





Bihurtu dezagun biral bakea © SED GGKE 2026k garatutako hezkuntza-proposamena da. Material honek baimen hau du: Creative Commons CC BY-NC-ND 4.0

Egileak: Ana Martín Bautista, Cristian Gómez Martín, Florencia Agustina Bulacio Vaira, Izaskun Adot Larumbe eta Tania Días Basurdo, SED GGKEko HGHE batzordeko kideak, Ana Fernández Moya proiektuen koordinatzailearen eta Beatriz de la Banda Velázquez batzorde iraunkorreko kidearen laguntzarekin.

Berrikuspen teknikoa: Nuria Salvatierra Villada, Jesús Rojas Aguilar, Rocío Rodríguez Rueda, Esther Lechado Hurtado, Coral de la Camara García, Teresa Rodríguez Pérez de Ayala, Isabel de la Cruz Sierra, Agnola Soler Ortiz, Inmaculada LLacer Moreno Auriolés, M^a del Carmen Millán Herrera, Sevillako Maristen ikastetxeko irakasle taldeko kideak.

Diseinuak: Zootropo Studio.

Maketazioa: Victoria Daima, SED GGKEko komunikazio-arduraduna.

“Bakea eraikitzen dugu” proposamen didaktikoa

Testuinguruan jartzea eta 16. GJHarekiko lotura

16. GJHak gizarte justuak eta erakunde sendoak sustatu nahi ditu. Ziklo honetan, gatazkak ez dira soilik inpultsiboak, eta estrukturalak eta sozialak ere izaten hasten dira (bazterketa, zurrumurruak, botere-borrokak jolasean). SEDen “Bihurtu dezagun biral bakea” kanpainari jarraituz, proposamen honek aldaketaren eragile bihurtzen ditu ikasleak. Beraien emozioa kudeatzeaz gain, inguruak eta arauak indarkerian nola eragiten duten aztertzen dute, horiek eraldatzeko.

Bakea hemen ez da zaratarik eza, justiziaren presentzia baizik. SEDen lelopean, proposamen honen helburua da ikasleak gatazken ikusle pasibo izateari uztea eta eragile aktibo bihurtzea.

- **Justizia vs. zigorra:** 16. GJHak erakunde sendoez hitz egiten du. Ikasgelan, erakunde bat sendoa da etengabe zigortzeko beharrik ez duenean, zaintzarako akordioak eraiki dituelako.
- **Kutsatze-efektua:** “biral egiteak” esan nahi du ikasle batek irainaren ordezkari elkarriketa erabiltzen ikasten badu keinu hori kutsatu egiten dela. “Begia begi truk” kulturatik erreparazioaren kulturara igaro gara.

Laburbilduz: jardueren helburua ikasleak ahalduntzea da, gai izan daitezen leku bat zergatik den gatazkatsua identifikatzeko eta, horrez gain, leku hori eraldatzeko eurek (talde gisa) zer egin dezaketen aztertzeko.



Esparru teorikoa

Kontzeptuak

- Bake imperfektua (gatazka gizatiarra da, indarkeria ez),
- Egiturazko analisia (inguruneak garrantzia du)
- Indarkeriarik gabeko komunikazioa (IGK)
- Justizia Errestauratiboa.

Zer gertatu da objektiboki?
Zer dago gatazkaren atzean?
Nola aldatu dezakegu lekua edo araua, berriro gerta ez dadin?

Saioa gidatzeko galderak

Helburuak

- Gertaerak eta iritziak bereiztea, gatazken gorakada murrizteko.
- Espazio fisikoek eta arauak bizikidetzan nola eragiten duten aztertzea.
- Kaltea konpontzen saiatzea, zigorraren irtenbide moduan.
- Konpetentziak: herritartasunerako konpetentzia, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, gizarterako konpetentzia.



1. IE: “Egiaren betaurrekoak” (1h)

Helburuak

- Gaitasun emozionala indartzea, eta norberaren eta besteen sentimenduak eta beharrak ezagutzea.
- Ikasgelako benetako gatazkak modu baketsuan eraldatzeko tresna asertiboak ematea.

Jarduera

Hasiera: irakasleak bi ikasleren artean simulatutako egoera gatazkatsu bat kontatuko du. “Irtenbide biral” bat proposatzea da erronka, gainerako ikasgeletara kutsatzeko.

Garapena: ikasgela 3 ikerketa-taldetan banatuko da, eta kolore desberdinetako kartoi mehezko betaurrekoak erabiliko dituzte.

- **Betaurreko gorriak:** gertaera objektiboetan oinarritzen dira. Zer gertatu da zehazki? Irainik eta iritzirik gabe, datuak bakarrik (Tresna: IGKren behaketa).
- **Betaurreko moreak:** pertsonak aztertuko dituzte. Nola sentitzen dira inplikatuak eta zer behar dute ondo egoteko? (Tresnak: sentimenduak eta beharrak).
- **Betaurreko urdinak:** egitura aztertuko dute. Leku zaratatsu batean gertatu da gatazka? Ba al dago lagungarria ez den araren bat? Ba al dago kanpoan ikasitako “nagusitasunezko” diskurtsorik? (Tresna: egiturazko analisia).

Betaurrekoak txandaka erabiliko dituzte talde guztiek, dimentsio guztiak lantzeko.

Itxiera: ondorioak gizarteratzea eta akordio espezifikoak egitea. Azken produktu gisa, bideo bat grabatuko dute edo antzezlan bat antzeztuko dute, gatazka eta emandako konponbidea erakusteko; formula hau erabiliko dute: “Ikusten dudanean...” (gorriak), “... sentitzen naiz, behar dudalako” (moreak) eta “Ondo iruditzen zaizu...” (akordioa – betaurreko urdinak).



1. zatia

Bideoan ikusten da Markosek Aitorri bultza egiten diola jolastokiko ilaran. Aitor erori egiten da ia. Batzuek barre egiten dute. Bideoak 7 segundo irautez ditu, eta hor amaitzen da. Pertsona batzuek iruzkin hauek egiten dituzte:

1. iruzkina: "Markos arazo bila dabil beti."

2. iruzkina: "Astakilo galanta!"

3. iruzkina: "Aitor gaixoa."

Galderak:

-Nork jokatu du gaizki?
-Zuen ustez, nola sentitzen da Aitor?
-Zer iruzkin iruditzen zaizkizue bidegabeak edo arinegi esandakoak?

2. zatia

Bideoan grabatutako unearen aurretik, Markos bere txapela itzultzeko esaten ari zitzaion Aitorri, txapela kendu eta korrika eta barrezka baitzebilan batetik bestera bere txapela ikaskideei erakutsiz, eta beste batzuk ere barrezka ari ziren. Markos haserre eta urduri zegoen. Txapela berreskuratzen saiatu zenean, bideoan ikusten den bultzada eman zion.

Galderak:

-Aldatu al du emandako informazioak aurretik pentsatzen zenutena?
-Hain erraza al da orain "erruduna" nor den erabakitzea?
-Beste zer gertatu zen bideoaren aurretik?
-Zer galtzen dugu gertatutakoaren amaiera bakarrik ikusten badugu?

3. zatia

Bultzatu ondoren, irakasle batek biek hitz egin zuen. Aitorrek aitortu zuen txantxa bat egiteko hartu ziola txapela, baina ez zuela uste horrela amaituko zenik kontua. Markosek esan zuen oso haserre zegoela, eta ez ziola bultza egin behar. Elkarri barkamena eskatu zioten biek. Hala ere, bideoa zabaldu egin zenez, zenbaitek esaten zuten Markos oldarkorra eta arriskutsua zela.

Galderak:

-Zer arazo ikus dezakegu hemen, bultzadaz gain?
-Zer gertatzen da bideo bat zabaltzen jarraitzen denean, egoera aldatu bada ere?
-Bidezkoa al da norbait epaitzen jarraitzea, horrelako bideo labor baten ondoren?
-Zer kalte egin dezakete ondorengo iruzkinek?




4. zatia

Markos ez zegoen ondo, aurretik ere barre egin baitzioten beste klase batean. Aitor ere ez zegoen ondo: lagun talde berria zuen, eta barregarria izan nahi zuen haien aurrean. Zenbaitek bideoa partekatu zuten, zer gertatu zen galdetu gabe. Beste ikaskide batzuek ere iritzia eman zuten, gertatutakoa ikusi ez zuten arren.

Galderak:

-Zer zati garrantzitsu ez dira ikusten bideo labor batean?
-Zergatik da arriskutsua iritzia ematea gertatutakoa zuzenean ikusi ez dugunean?
-Ikusten ez diren emozioak, gertaerak edo arazoak egon daitezke?
-Zure ustez, jendeak azkarregi partekatzen ditu bideoak, aurrez edukia aztertu gabe?

Betaurreko



2. IE: “Gure bake-akordioa” (1h 30 min)

Helburuak

- Ikasleak ahalduntzea bake-eragile gisa, elkarlanerako bizikidetza-esparru bat elkarrekin sortuz.
- Zigor-eredu tradizionalaren ordeztu, erantzukizun partekatuko eta justizia errestituatiboko sistema erabiltzea.

Jarduera

Hasiera: mailako batzarrerako deia egingo da. Irakasleak adieraziko die, eskola “erakunde sendoa” izan dadin (16. GJH), Zuzendaritza Taldeak “Bake Akordioak” idazteko eskatu diela 3. eta 4. mailakoei.

Garapena: talde txikietan, ikasleek seguru eta zoriontsu sentiarazten dituzten egoerak identifikatuko dituzte. Debekuen ordeztu, ikasgelan GERTATZEA NAHI DUTEN 3 ekintza proposatu behar dituzte.

- Adibidez: “Ez oihukatu” proposatu ordeztu, honako hau proposatu daiteke: “Guztiok esaten duguna entzuteko moduko tonuan hitz egingo dugu”.
- Proposamen bakoitza bozkatu egingo da, galdera kritiko hau eginaz: “Arau hori lagungarria da denok barnean hartzen gaituztela eta ez gaituztela bazterten sentitzeko”?

Itxiera: arauak eztabaidatu eta guztion artean onartu ondoren, proposamenak jasoko dira eta hizkuntza positiboan idatziko dira horma-irudian, ohiko premiak adieraziz (errespetua, jolasa, laguntza, isiltasuna). Kontratua baliozkotzeko, pintura erabiliz, ikasle bakoitzak bere hatz-marka jarriko du testuaren inguruan. Amaitzeko, irakasleak bake inperfektuari buruzko gogoeta egingo du: “Badakigu batzuetan huts egingo diogula kontratu honi, baina kontratuan bertan jasotzen da barkamena nola eskatu behar dugun eta egindako kaltea nola konpondu behar dugun”. Ikasgelako lekurik ikusgarrienean jarriko da ikusgai horma-irudia, taldearen bake-akordio gisa.

3. IE: “Bake espazioetako arkitektoak” (1h)

Helburuak

- Ingurune fisikoaren antolaketak harremanetan eta gatazken sorreran nola eragiten duen aztertzea.
- Eskola-politikan eragina izatea sustatzea, ikastetxean egiturazko hobekuntzak proposatuz.

Jarduera

Hasiera: irakasleak ikastetxean zehar “espedizio” bat egitera gonbidatuko ditu (patioa, korridoreak, jangela). Irakasleak 3ko taldetan banatuko dira. Lehenik eta behin, ikasleek eskolaren mapa bat egingo dute (ikusitako jarraian), eta, ondoren, eraikinean zehar ibiliko dira, honako hauek detektatzeko:

- Puntu beroak: bultzadak, zarata edo borrokak gertatzen diren lekuak.
- Bakardade-puntuak: norbait ikusezin edo baztertuta senti litekeen lekuak.

Garapena: ibilbidearen ondoren, galdera hau planteatuko da: haurra da gaizki portatzen dena, edo lekua da aspergarriegia/txikiegia/zaratatsuegia? Ikasgela “arkitektoen” taldetan banatuko da; egokiena hasierako taldeak aldatzea litzateke. Talde bakoitzak aukeratutako jolastokiaren edo eremuaren plano edo maketa baten gainean lan egin behar du, eta nahitaezko 3 txoko proposatuko ditu:


- Lasaitasunaren txokoa (aterpea): eserlekuak, itzala edo liburuak dituen espazio bat, lasaitasuna behar dutenentzat, irakurtzeko edo atsedean hartzeko.
- Jolas kooperatiborako txokoa: futbolerako bakarrik ez diren espazioak, jolasean denek parte hartzea eskatzen dutenak.
- Elkarriketarako txokoa: ikasleek apaindutako eserleku edo zirkulu berezi bat, gatazka-egoeraren bat dagoenean indarkeriarik gabeko komunikazioaren pausoak aplikatu ahal izateko.

Itxiera: taldeek beren azken maketak edo proposamenak aurkeztuko dituzte, eskaera argiak eginez: “Jolastokian baloiak soilik erabiltzen direla ikusten dugunean, baztertuta sentitzen gara, aniztasuna behar dugulako, eta, horregatik, mahai-jokoetarako txoko bat ezartzea eskatzen dugu”. Ondoren, Zuzendaritza Taldea edo Eskola Kontseilua gonbidatuko dira, proposamenak entzun ditzaten, eta akordioak egingo dira. Azken produktua edo emaitza egiturazko hobekuntzekin lotutako eskaerei buruzko gutun formal bat edo horma-irudi bat izan daiteke, eta ikastetxeko zuzendaritzari emango diote, ikastetxeko antolakuntzatik “bakea biral bihurtzeko”.



Eskolako maparen adibidea

Ikasleek erabiltzen dituzten eremuak soilik jaso dira.



Erreferentzien koadroa



Puntu beroak



Lasaitasunaren txokoa



Jolas kooperatiborako txokoa



Elkarriketarako txokoa



Bakardade-puntuak

4. IE: “Zurrumurruen detektibeak” (1h)

Helburuak

- Pentsamendu kritikoa garatzea gorroto-diskurtsoen eta zurrumurruen hedapenaren aurrean.
- Etiketek eta iritziek taldearen osasun emozionalean duten eragina identifikatzea.

Jarduera

Hasiera: irakasleak ilaran jartzeko eskatuko die ikasleei, eta esaldi positibo bat xuxurlatuko dio lehenengoari, baina xehetasunekin, adibidez:

“Atzo ikusi nuen Ametsek lokarriak lotzen lagundu ziola Danielari, triste zegoelako”. Mezuak ilaran zehar bidaiatuko du. Itxuraldatuta iristen da ia beti: “Amets eta Daniela triste daude lokarriengatik” edo zerbait okerragoa esan dezakete. Hausnarketa hau egitea edo leku honetara iristea espero da: “Jabetu zarete? Egia polita zen, baina ahotik ahora pasatzean hondatu egin da. Eskolan ere berdin gertatzen da: zurrumurru bat eraldatu den egia bat da. Gaur horiek konpontzen ikasiko dugu”.

Garapena: arbelean, hiru ate edo “burdin hesi” marraztuko dira, eta gero azalduko diegu ikaskide bati buruz zerbait esan aurretik mezuak **3 iragazki igaro** behar dituela:



Hemendik aurrera, WhatsAppeko mezu bat edo jolastokian egindako iruzkin bat simulatzen duen paper bat banatuko da. Adibidez:

Ikusi duzu Peio? Oso astuna da, eta inork ez du berarekin jolas egin nahi, gauza guztiak puskatzen dituelako.

11:02 ✓✓



Ikasleak hura garbitzen saiatzea proposatzen da, Egiaren Betaurrekoak (IGK) erabiliz, eta berriro idaztea:

Gertaera: "Atzo Peiok jostailu bat hautsi zuen nahi gabe".

Sentimendua: "Pixka bat haserre sentitzen naiz, jostailu hori gustuko dudalako".

Eskaera: "Peio, kontu handiagoz jolastu dezakegu gaur?".

Itxiera: haur bakoitzak post-it bat jasoko du ("Benetako Like" baten ordeztu). Post-it horretan, behatu duten gertaera positibo bat idatzi behar dute: "Astelehenean arkatx bat utzi zenidan, eta hori gustatzen zait", edo "Ikusi dut lurreko paperak jasotzen dituzula". Ez du balio "Ederra zara" edo "Nire laguna zara", eta harreman gutxi duten norbait aukeratu behar dute.

Azkenean, "Bake Influencerrak" izeneko horma-irudi batean itsatsiko dira post-itak (ikus baliabide grafikoak jarraian). Eta saiatuko gara azaltzen benetako influencer bat izateak ez duela esan nahi jarraitzaile asko izatea, baizik eta zure hitzek besteei laguntzea (16. GJH).

Azken horma-irudia osatzeko baliabide batzuk:



BAKE INFLUENCERRAK

#BIHURTUDEZAGUNBIRALBAKEA

5. IE: “Erreparazio-tailerra” (1h)

Helburuak

- Zigorra (zigortzeko) eta erreparazioa (konpontzeko) bereiztea.
- Bizikidetza-akordio bat hautsi ondoren, gizarte-lotura berrezartzen ikastea.

Jarduera

Hasiera: irakasleak folio zuri eta garbi bat hartuko du, eta zimurtu egingo du denen aurrean, bola bat egin arte; ondoren, zabaldu eta lehen bezala gera dadin saiatuko da. Ikasleei azalduko die, papera lehen bezala dagoen arren, orbaina ikusten dela (zimurrak) eta pertsonengan ere berdin gertatzen dela: bakea ez da borrokarik ez egitea, hausten dena “itsasten” jakitea baizik.

Adibidez: “Begira, barkamena eskatu diot paperari, baina zimurrek hor jarraitzen dute. Gauza bera gertatzen da ikaskide baten bihotzean iraintzen edo jotzen dugunean: arrastoa geratzen da. Gaur, 'litsatzaileak' izaten ikasiko dugu, zimur horiek pixkanaka nola kentzen diren ikasiko dugu”.

Garapena: irakasleak zigorraren (txarra zuretzat, eta ez dio besteari laguntzen) eta erreparazioaren (bestea hobeto egoteko ahalegina egiten duzu) arteko aldea azalduko du. Azalpen labur horren ondoren, ikasleak 3 edo 4ko taldetan jarri, eta txartel bat emango zaie (ikusi osatu beharreko txartelak ondoren) egindako “kalte” batekin, eta irtenbide bat aukeratzeko eskatuko zaie. Adibidez:

Egindako kaltea	Zigorra (NAHI EZ duguna)	Erreparazioa (NAHI duguna)
Beste baten marrazkia apurtu dut.	Jolas-ordu gabe gelditzea.	Marraskia berriro egiten laguntzea edo nire marrazki bat oparitzea.
Norbait iraindu dut.	50 aldiz kopiatzea: "Ez dut irainduko".	Berari buruz atsegin ditudan 3 gauza esatea.
Ilarako norbaiti bultza egin diot.	Txokora joatea pentsatzera.	Ondo dagoen galdetzea eta nire lekua uztea ilaran.

Osatzeko txartelak

Egindako kaltea

Zigorra

Erreparazioa



Bihurtu dezagun biral bakea

Jarduera egin ondoren, ikasleak gonbidatuko ditugu hausnarketa hori egitera, hala, gatazkaren bat dagoenean zer egin daitekeen jakiteko:

- Datua: “Hau egin dut: ...” (Adibidez: estutxea kendu dizut).
- Bihotza: “Ulertzen dut sentitzen zarela” (Adibidez: “triste”).
- Konponbidea: “Konpontzeko....” (Adibidez: “zure margoak jasoko ditut oraintxe bertan”).

Itxiera: tirita forma duten paper-zatietan, haur bakoitzak egoera konpontzeko bururatzen zaion ideia bat idatziko du (adib. “Jolastera gonbidatuko zaitut”, “Etxeko lanekin lagunduko dizut”, “Besarkada bat emango dizut”). Amaitu ondoren, “Erreparazioen Eserlekua” izeneko kaxa apaindu batean sartu behar dituzte tirita guztiak. Helburua da, jarduera egin ondoren, ikasgelan gatazka bat badago, inplikatuak kaxara joatea, “tirita” bat ateratzea eta bertan jartzen duena betetzeko konpromisoa hartzea, sortutako “zimurra” konpontzeko.



10 minutuko dinamikak bakearen kultura indartzeko

1. dinamika: 5 ikasleko taldeetan, ikasle bakoitzak behar edo premia bat antzeztuko du mimika erabiliz (adibidez, segurtasunarekin, jolasarekin edo ordenarekin lotuta). Gainerakoek zer den asmatu behar dute, eta ekintza bat proposatu behar dute hura konpontzeko. **Ikuspegia:** premia unibertsalak modu ludikoan ezagutzea.

2. dinamika: aulkien jolasean arituko dira musikarekin, baina musika gelditzen denean, inor ezin da kanpoan geratu. **Ikuspegia:** inklusioa helburu nagusi duten konponbideak bilatzea.

3. dinamika: binaka, zer marraztu nahi duten adostu behar dute (jarrera positibo bat, edo ikasgelan espero den portaera bat). Gero, folio batean, bien artean arkatx berari eutsita, marrazkia egingo dute; ezin dute eztabaidatu marra norantz egin nahi duten, amore eman behar dute eta proposatu. **Ikuspegia:** negoziazioa eta zuzeneko lankidetzaren entrenatzea.

4. dinamika: gatazka bat izan duten bi kide pilota txiki bat puntu batetik bestera eramaten saiatuko dira, beren eskuen atzealdea soilik erabiliz, pilotari heldu gabe. **Ikuspegia:** eztabaida baten ondoren konfiantza eta talde-lana berreraikitzea.

5. dinamika: ostiralero, ikasleek ohar anonimoak sar ditzakete kaxa batean, zerbaitengatik barkamena eskatzeko edo bake-keinu bat eskertzeko. Ohar horietako batzuk irakurriko ditugu, ausaz. **Ikuspegia:** apaltasuna, barkamena eta kaltearen erreparazioa sustatzea (bake imperfektua).

6. dinamika: zurrumurruei buruzko lanketa egiteko, irakasleak istorio labur bat kontatuko dio ilarako lehenari, eta, horrela, ikasle guztiengandik igaroko da, eta azkenak ozen esango du. Istorioaren zer zati asmatu dituzten aztertuko da, eta hori bizitza errealean ere gertatzen dela esango diegu, gorrotoa edo borrokak sortuz horren ondorioz. **Ikuspegia:** iritzien eta albiste faltsuen arriskuaz kontzientziatzea.

7. dinamika: ikasle bat bere ikaskideek osatutako korridore batetik igaroko da. Ikaslea igarotzen denean, besteek asteaz zehar harengana ikusi duten ezaugarri positibo bat xuxurlatuko diote. **Ikuspegia:** autokontzeptua indartzea eta bestearen balioa aitortzea komunitatearen barruan.

Ebaluazioa

A. Ebaluazio-zerrenda

Markatu ✓ batekin, jardueretan portaera hauek ikusten badituzu:

Ikaslea	Gertaerak identifikatzen ditu (iritzirik eman gabe)	Beharrak adierazten ditu	Irtenbide positiboak proposatzen ditu	Akats baten ondoren, egindako kaltea erreparatzen du
Identifikazioa: Ezagutzen ditu oinarrizko sentimenduak berarengan eta besteengan?				

B. Autoebaluaziorako itua

Itu baten marrazki batetik abiatuta, esaldiarekin zenbat eta gehiago identifikatu, ikasleak puntu bat marraztuko du erdigunetik orduan eta gertuago:

Besteei entzuten diet, eten gabe.

Badakit esaten nola sentitzen naizen, oihurik egin gabe.

Jolas-orduan inor bakarrik gera ez dadin laguntzen dut.

Oker jokatzeko badut, konpontzen saiatzen naiz.



Arrakastaren irizpidea: Ebaluatzekeo hizkuntza (irainak/iritziak) murriztea lortu du taldeak, eta “Elkarrizketarako eserlekua” edo “Erreparatzeko txartelak” modu autonomoan erabiltzen ditu.

Gelako emaitzak partekatu nahi dituzu?

Bidaliezaguzu materiala (argazkia, bideoak, jardueraren laburpena) helbide honetara: comunicacion@sedongd.org.

*SED GGKEtik, gure kanaletan argitaratuko ditugu zuek bidalitako lanak, **bakea biral egiteko eta kanpainaren eragina ikusarazteko.***

Ebaluatu materiala!

Bidaliezaguzu zure iruzkina **inprimaki** honen bidez.

Kanpainaren eragina ebaluatzeko eta etorkizuneko ekintzetarako hobetzeko aukerak identifikatzeko eta baloratzeko soilik tratatuko ditu datuak SED GGKEak.

